

Denis Itxaso González Jn. Bere izenean eta Markel Olano Arrese jaunaren ordez.

Elena Lete Garcia And.

Vicente Pérez Fernández jn. (bideokonferentzia bidez), Tomás Fernández García jaunaren ordez

Carlos Ruiz González Jn.

Juan José Álvarez Rubio Jn.

Iñaki Esparza Leibar Jn.

Maite Barruetabeña Zenekorta And.

Miren Artaraz Miñón And. (Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateetako zuzendaria, gonbidatu gisa)

**BERGARAKO UNED FUNDAZIOAREN
PATRONATUAK 2017KO AZAROAREN
22an GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN JAUREGIAN
EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

2017ko azaroaren 22an, 17:30etan, zerrendatu diren Patronatuko kideak elkartu dira, eta hau izan da **GAI ZERRENDA**:

1. 2017ko bilerako akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.
 2. Patronatuak Fundazioaren estatutuen aldaketa aztertzea eta onartzea, kasua bada.
 3. Fundazioaren 2018. Urterako aurrekontuak aztertzea eta onartzea, kasua bada.
 4. Errege Mintegiaren eraikinaren lanen egoerari buruzko informazioa. Kronograma eta 2017. eta 2018. ekitaldietarako lanen aurrekontuaren gauzatzea. Altzariak kontratatzeko lehiaketa hasteari buruzko akordioa, hala badagokio.
 5. Eskariak eta galderak.
-

1.) Aurreko akta.

Onartzen da Patronatuaren 2017ko uztailaren 24ko bileraren akta.

2.) Patronatuak Fundazioaren estatutuen aldaketa aztertzea eta onartzea, kasua bada.

Vicente Perezek adierazi du ez duela denborarik izan puntu honi buruzko proposamena azterzeko, eta beraz ezin du iritzirik eman; gaia atzeratzeko eskatu du. Dena den, adierazi du 40/2015 Legeak zenbait aldaketa ekarri dituela sektore publikoari dagokionez. Zentzu horretan, zentroen izaera juridikoa egokitzen ari da UNED, eta Estatuko Abokatutzak emandako txosten batek gomendatzen du ezen, fundazioaren izaera juridikoa duten zentroen estatutuen edozein motako aldaketa egin behar den unean azter dadin partzuergo izaera hartzearen gaia. Proposatu du Eusko Jaurlaritzari eskatzea Patronatuan parte har dezan, gonbidatu gisa, behin adierazitako alderdi hori argitu eta gero.

Denis Itxaso harrituta agertu da irizpide aldaketa horrekin, estatutuen aldaketaren gaiak denbora asko daramalako mahai gainean, aurreko aktetan ikus daitekeenez.

Juanjo Álvarezek eskatu du UNEDek txosten juridiko bat bidal dezala, izaera juridikoa aldatzeko proposamen horren aldeko argudioak adieraziz. Horren aurrean, Vicente Pérezek proposatu du Estatuko Abokatutzari gai horri buruzko galdera egitea.

Juanjo Álvarezek adierazi du ezen UNEDek proposatzen duela aldaketaren gaia atzeratzea, izaera juridikoaren aldaketa egiteko oinarri juridikoa izan arte.

Denis Itxasok adierazi du gai hori garrantzi handikoa dela Fundazioarentzat, baina gaur arte ez zaiola aldez aurretik jakinarazi.

Juanjo Álvarezek adierazi du UNED-Bergara Fundazioak betetzen duela indarrean dagoen legedia, eta ez daudela ados aldebakarreko erabakiz UNEDek aldaketa hori proposatzearekin, eta ohartarazten du ezen, UNED-Bergara Fundazioak funtzionamendu desegokia baldin badu, errekerimendu bat proposatu beharko litzatekeela.

Miren Artarazek adierazi du ezen, Eusko Jaurlaritza sartzeko egin nahi den aldaketa estatutuen aldaketa arrunt bat dela, eta ez duela zerikusirik fundazioaren izaera juridikoaren aldaketarekin.

Denis Itxasok Gipuzkoako Foru Aldundiaren harridura helarazi du, UNEDen jokabidea dela eta, eta nabarmendu du Aldundiak bat egiten duela Eusko Jaurlaritzak Patronatuan parte hartzeko asmoarekin. Adierazi du, halaber, egokitasun irizpidean oinarrituta egin dela orain proposamena.

Hori dela eta, puntu hori erretiratu egin da gai zerrendatik, UNEDek argitu egin nahi duelako, estatutuak aldatu aurretik, izaera juridikoaren irizpidea.

3. Fundazioaren 2018. urterako aurrekontuak aztertzea eta onartzea, kasua bada.

2018rako UNED-Bergara Fundazioaren aurrekontu arrunta aurkeztu du zuzendariaik, xehetasunak emanez.

Aldaketa nabarmenena langile gastuen kapituluan dago, 2017ko erretiroek nahiz 2018an izango direnek (aurreko aktaren 6. atalean jasota daude) plantilan izango duten eraginagatik.

Bestalde, zerbitzu profesionalentzako 21.000 euro gehiago aurreikusi dira, erretiroa hartu duen administratzaileak egiten zituen hainbat zeregin kanpoko zerbitzu batek egingo baititu.

Miren Artarazek adierazi du Eusko Jaurlaritzak 100.000 euro jarri dituela bere aurrekontuan Fundazioarentzat, betiere aurrekontua onartzen bada.

Hala, gastuak 1.111.694,31 euro dira, eta diru sarrerak, berriz, 561.466,31 euro. Hori dela eta, patroiek 550.228,- euroko ekarpena egin behar dute guztira.

Batzordeak 2018ko aurrekontua onartu du, eta baita patronatukideen ekarpen hauek ere:

Foru Aldundia	% 63,61	350.000 euro
KUTXA	% 26,39	145.205 euro
Bergarako Udala	% 10	55.023 euro

2018. urterako onartu den aurrekontuaren kopia erantsi zaio aktari –1. eranskina–

4.) Errege Mintegiaren eraikinaren lanen egoerari buruzko informazioa. Kronograma eta 2017. eta 2018. ekitaldietarako lanen aurrekontuaren gauzatzea. Altzariak kontratatzeko lehiaketa hasteari buruzko akordioa, hala badagokio.

Iñaki Esparzak obra proiektuak izan dituen zenbait aldaketaren berri eman du, hala nola material aldaketa, eta aurkitu diren eta aurrekontua igoaraziko duten egiturazko zenbait arazo.

Halaber adierazi du zailtasunak daudela obra eta zentroaren jarduera bateratzeko, baina hala eta guztiz ere, exekuzio epeak betetzen ari direla. Astero egiten ari dira jarraipen bilerak obrako arduradunekin; zentzu horretan, gonbita luzatzen die Patronatuko kideei bilera horietan biltzen den informazioa kontsulta dezaten, egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

Bestalde, Iñaki Esparzaren iritziz, altzariak erosteko lehiaketa abian jarri behar da lehenbailehen, eta Patronatuak ere egokitzat jo du proposamena, eta onartu egin da. Gogorarazi dute Eusko Jaurlaritzaren ekarpenean altzarien erosketari lotua dagoela.

Elena Letek eskatu du exekuzioan gerta daitezkeen aldaketak eta partida berriak jada eginda dauden ekarpenekin ordaintzea. Era berean, Carlos Ruizek adierazi du ekarpen horiek bat etorri behar dutela erakunde bakoitzaren portzentajearekin.

Denis Itxaso bileratik atera da 18:40an.

8.) Galderak eta eskaerak

Vicente Pérezek barkamena eskatu du, izaera juridikoaren aldaketari buruz egin duen gogoeta berandu etorri dela ulertu bada.

Beste gairik ezean, lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du seiak eta berrogeita bost minuto direnean, eta nik idazkari bezala ziurtatzen dut.

D. Denis Itxaso González (en nombre propio y por delegación de D. Markel Olano Arrese)
Dña. Elena Lete García
D. Vicente Pérez Fernández (por videoconferencia) en representación de D. Tomás Fernández García
D. Carlos Ruiz González
D. Juan José Álvarez Rubio
D. Iñaki Esparza Leibar
Dña. Maite Barruetabéña Zenekorta
D. Miren Artaraz Miñón (Directora de Universidades del Gobierno Vasco, en calidad de invitada)

ACTA DE LA REUNIÓN DEL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN UNED BERGARA, CELEBRADA EL DIA 22 DE NOVIEMBRE DE 2017, EN EL PALACIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.

Siendo las 17:30 horas del día 2 de noviembre de 2017, se reunieron los miembros del Patronato, detallados al margen, con el siguiente **ORDEN DEL DIA:**

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 24 de julio de 2017.
 2. Análisis y aprobación por el Patronato, en su caso, de la reforma de los estatutos de la Fundación.
 3. Análisis y aprobación, si procede, de los presupuestos de la Fundación para el año 2018.
 4. Información sobre estado de las obras en el Edificio del Real Seminario. Cronograma y ejecución del presupuesto de las obras para los ejercicios 2017 y 2018. Acuerdo, si procede, en relación con el inicio del concurso para la contratación del mobiliario.

 5. Ruegos y preguntas.
-

1º) Acta anterior.

Se aprueba el Acta de la reunión del Patronato de 24 de julio de 2017.

2º) Análisis y aprobación por el Patronato, en su caso, de la reforma de los estatutos de la Fundación.

Vicente Pérez indica que no han tenido tiempo para analizar el contenido de la propuesta con respecto a este punto, por lo que no pueden pronunciarse y plantean posponer esta cuestión. No obstante, indica que la nueva Ley 40/2015 ha supuesto diversos cambios con relación al sector público. En este sentido, la UNED está adecuando la naturaleza jurídica de los distintos centros, y la Abogacía del Estado ha emitido un informe donde aconseja que ante cualquier modificación estatutaria de centros que funcionan con la personalidad jurídica de fundación se plantee la modificación a consorcio. Propone que se invite al Gobierno Vasco a participar en el Patronato pero como invitados en cuanto se aclare este aspecto.

Denis Itxaso muestra su extrañeza ante este cambio de criterio puesto que el tema de la modificación estatutaria lleva tratándose durante mucho tiempo, y así consta en actas anteriores.

Juanjo Álvarez pide que se envíe por parte de la UNED un informe jurídico donde argumenten este planteamiento de modificación de personalidad jurídica. Ante lo cual Vicente Pérez propone elevar la cuestión a la abogacía del estado.

Juanjo Álvarez indica que se plantea por parte de la UNED posponer la aprobación de la modificación sin una base jurídica que sustente la necesidad de cambiar la personalidad jurídica.

Denis Itxaso indica que esta cuestión es de gran calado para esta fundación y no ha sido notificada previamente a la misma en este sentido hasta el día de hoy.

Juanjo Álvarez indica que la fundación UNED-Bergara cumple con la legalidad vigente y no se comparte que unilateralmente la UNED plantea este cambio, advirtiendo que si la Fundación UNED-Bergara tiene un funcionamiento inadecuado debería plantearse un requerimiento.

Miren Artaraz indica que la inclusión del Gobierno Vasco que se pretende con la modificación estatutaria es una modificación ordinaria que nada tiene que ver con la modificación de la personalidad jurídica de esta fundación.

Denis Itxaso indica la extrañeza de la Diputación Foral de Gipuzkoa por la actuación que se ha tenido por parte de la UNED, y constata el interés de la Diputación en que el Gobierno Vasco participe en el Patronato. Indica asimismo un criterio de oportunidad para plantear esta cuestión en este momento.

Por todo ello, se retira este punto del orden del día debido a que la UNED quiere que se clarifique el criterio de la personalidad jurídica antes de aprobar cualquier cuestión que afecte a los estatutos.

3º) Análisis y aprobación, si procede, de los presupuestos de la Fundación para el año 2018.

Se presenta para su aprobación el presupuesto ordinario de la Fundación UNED-Bergara para el año 2018, que el Director explica en detalle.

La modificación más mencionable es en el capítulo de gastos de personal debido a los cambios que afectan a la plantilla en relación a las jubilaciones que se han dado durante el 2017 y las que se darán en el 2018, los cuales se recogen en el apartado sexto del anterior acta.

Por otra parte, en relación con los servicios profesionales, se incrementa en 21.000€ debido a que ciertas labores que realizaba la administradora jubilada se realizarán mediante un servicio externo.

Indica Miren Artaraz que el Gobierno Vasco ha incluido, en su presupuesto para el 2018, 100.000€ para la fundación, a expensas de que se apruebe el presupuesto.

Los gastos ascienden a la cantidad de 1.111.694,31 euros, siendo los ingresos previstos por distintos conceptos de 561.466,31 euros, por lo que la aportación de los patronos será de 550.228,- euros.

La Junta aprueba el presupuesto para el año 2018 y las siguientes aportaciones de los patronos:

Diputación Foral	63,61%	350.000,- €
KUTXA	26,39%	145.205,- €
Ayunt. de Bergara	10%	55.023,- €

Se acompaña a la presente Acta copia del Presupuesto para el año 2018 aprobado, como **Anexo nº 1**.

4º) Información sobre estado de las obras en el Edificio del Real Seminario. Cronograma y ejecución del presupuesto de las obras para los ejercicios 2017 y 2018. Acuerdo, si procede, en relación con el inicio del concurso para la contratación del mobiliario.

Iñaki Esparza informa que ha habido ciertas modificaciones en relación con el proyecto de obra, tales como cambio de ciertos materiales, así como problemas estructurales que se han encontrado e incrementarán el presupuesto.

Asimismo, manifiesta que está resultando complicado compaginar la obra con la actividad del centro, pero a pesar de ello se están cumpliendo los plazos de ejecución. Se están realizando reuniones semanales de seguimiento con los responsables de la obra, invitando a los miembros del patronato a consultar la información que se recopila en esas reuniones para aclarar dudas, si las hubiese.

Por otra parte, entiende Iñaki Esparza necesario anticiparse y poner en marcha el concurso para la contratación del mobiliario, considerándose oportuno por parte del patronato y, en consecuencia, quedando aprobado. Se recuerda que la aportación del Gobierno Vasco va vinculada a la adquisición del mobiliario.

Elena Lete pide que las modificaciones que puedan darse en la ejecución o nuevas partidas se asuman con las aportaciones ya realizadas. Asimismo, indica Carlos Ruiz que las aportaciones deberán adecuarse al porcentaje de cada institución.

Denis Itxaso abandona la reunión a las 18:40.

8^a) Ruegos y preguntas

Vicente Pérez hace constar sus disculpas si se entiende que su reflexión en relación con la modificación de la personalidad jurídica se ha realizado tarde.

Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las 18 horas y 45 minutos, lo que yo, Secretaria, certifico.